

abendu | urtarrila
december | january

37

the balde



0€



beroa zero azpitik
warm below zero



skunkfunk
people do funk



urban nature



www.skunkfunk.com

37



the balde

antsoain 1
31014 iruñea
t. +34 948 12 19 76

kristobaldegi 14
20014 loiola donostia
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 696406396

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com - komunikazioa eragin sli

editore / editor: iñigo martínez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director &

publizitatea / publicity: iñigo martinez & ainara mujika

diseinua / design: martin etxauri, txuma vazquez, marisa mantxola

sonia beroiz, ainara gorostiaga, ekaitz auzmendi, igor astigarraga

itzulpenak / translations: smiley, amaia orella, elixabete ansa

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz villar,

myriam gartzia, uxeta labrit, maria odolbatu, osvaldo espino, isidro lopez

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: framn rezende,

galder izagirre, the balde crew,

komikia / comic: txuma

harpidetza orria / subscription page: luzia

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:


BY NC ND Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>


Lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:

Imaginative, provocative and interesting works? send them to:

info@thebalde.net



Eusko Jaurlaritzako
Kultur sailak diruz
lagundutako aldizkaria



A THE BALDE CONCERT BY ZERO7

A concert organized by our music expert. He took the risk at a time when only big names sell. Just for this reason, we always will believe it was a great concert. However, it is nice to see that this time it is not a lie, because Zero7 are great and because organizers of such countercurrent events deserve our honest admiration.

ZERO7 KONTZERTUA THE BALDE

Gure musika adituak antolatutako kontzertua. Izen handiek soilik saltzen duten garaietan arriskuak hartzen dituenik ezin esan. Ausardia honexegatik soilik sekulako kontzertua izan zela esango genuke beti. Hala ere, kasu honetan behintzat gezurretan ez ibiltzea poztekoa da. Zero7 handiak direlako eta korrontearen kontra gisa honetako kontzertuak antolatzen dituztenek gure miresmena dutelako.



KEA ARTELEKUN

Bi gune banatzen dituen errezel estruktura batek su hartu eta bi iturriko sute bati ematen dio hasera...esaldi hau, urtarrilaren 5a arte Aitor Bengoetxea, Ion Arregi eta Martin Ferranen Kea izeneko instalazio-erakusketaren abiapuntua da. Keri jarraitu eta Artelekuraino eramango zaitu.

KEA IN ARTELEKU

A curtain separating two different spaces starts burning... This phrase is the beginning of Aitor Bengoetxea, Ion Arregi and Martin Ferran's Kea (smoke) project. The exposition will be open until the 5th of January. You just have to look at the smoke and follow it until you arrive to Arteleku.

LOVE WILL ALWAYS BE

Disziplina ezberdinen nahasketaz hizkuntza pertsonal baten bila dabilen artista da Ainize Txopitea. Bilaketa horren emaitzak baino, bilaketa prozesuan sortutako obrak erakusten dizkigu Arteko Galerian (abenduaren 15era arte). Eremu misto horretan sortzen du bere poesia Ainize Txopiteak, hitz, marrazki eta argazkiekin eginiko collage ederretan

LOVE WILL ALWAYS BE

Ainize Txopitea is an artist that is searching for a personal voice within a mixture of disciplines. Instead of offering works that are the result of such search, Txopitea is showing in the Art Gallery (until December 15th) works created from the actual searching process. Ainize Txopitea's poetry is born in that fused space of beautiful collages made of words, drawings and photographs..





FRING

The last discovery in telecommunications: A Hatos IP software, similar to Skype but for cell phones. It is called Fring and it uses net data, 3g or wi-fi connections. It is offered for free by the company that created it. You download the software on your cell phone and the software itself searches for the cheapest connection. After that, you connect to it and you only end up paying data communication, instead of paying voice communication.

More info at:

www.fring.com

FRING

Telekomunikazio munduko azken deskubrimendua. Hatos IP software bat, Skype ezagunaren modukoa, baina telefono mugikorretarako. Fring izena du eta datu sareak erabiltzen ditu, 3g edo wi-fi konexioak. Garatu duen enpresak debalde eskaintzen du sarean. Softwarea telefonoan kargatu eta berak bere kabuz konektatzeko modurik merkeena bilatzen du. Gero konektatu eta erabiltzaileak datu komunikazioa soilik ordaintzen du, ahots komunikazioa ordaindu beharrean. Info gehiago:

www.fring.com



ARTO ARTIAN-ENTZUN! FESTA

Abendunaren 28an aukera duzu muturreko musika, esperimental, intentsoa eta ausarta zuzenean entzuteko aukera Donostiako Dokan. Eta ez ahaztu Dj Amsia azkoitiarrak Arto Artian-en azken katalogoan azaltzen diren erreferentzien soinuak jaso, nahastu, desegin, zikindu eta birmoldatu egin dituela. Eraitza Arto Artian, berrirakurketa #2 diskoan entzun gai duzu. Lortu festan bertan edo Entzun! aldizkariaren bitartez.

ARTO ARTIAN-ENTZUN! PARTY

The 28 of december you have the chance to listen experimental and deep music made from the edge. It will be at the Doka kafe in Donostia. DJ Amsia, from Azkoitia has mixed and deformed the tracks included in the last Arto Artian volume. You'll be able to get Arto Artian berrirakurketa #2 in the concert or with the last issue of Entzun! Magazine.



ARTEA ESTOLDETAN

Erromatarrak izan ziren euren hirietako estoldak dekoratzen hasi ziren lehenak. Orduz geroztik, zibilizazio eta kultur ezberdinek ez diete inongo jaramonik egin hirietako ur eta zikinkeriak jaten dituzten ahoei. Eskerrak hori aldatzen hasi den. Kale artista kontzeptuak gutxitan izan du hainbeste zentzurik.

www.6emeia.com

ART IN DRAINS

The Romans were the first ones decorating their drains. Since then, civilizations and cultures have paid no attention to the drains that swallow their city's waters and dirts. Fortunately that is changing. The term "Street Artist" has almost never been used so truthfully.

www.6emeia.com



San Clemente, California
more on franklinandmarshall.com




**FRANKLIN
MARSHALL**



HEIRA PIADOSA

Manu Urangak bere azken proiektua aurkeztu du. Super 8 eta bideo kamaraz filmatutako ikus-entzunezko lan honek lau atal ezberdin ditu eta pelikulak irauten dituen ia 15 minutuetako eszena asko, aktoreek euren kaxa filmatu dituzte. Hera Piadosa izenburua du pelikulak eta ez zaitu epel utziko.



HEIRA PIADOSA

Manu Uranga has presented his latest project. This audiovisual work has been filmed with different formats such as super 8 and video. This short movie has 4 chapters and many of the scenes have been filmed by the actors themselves. "Hera Piadosa" is the name of the this unusual film.



GRAPHIT SOUND

Zein da marrazki baten soinua? Tramankulu honek diskoetan marrazturiko grafito aztarnak irakurri eta euren doinuak entzuteko aukera ematen digu. Tramankulu hau majarada hutsa da. Eta majarada ederrak maite ditugu the balden. Marrazki ezberdinen katalogoa eta bakoitzaren doinuak ikus eta entzun ditzakezu ondorengo helbidean:

<http://calebcoppock.com/Homepage/graphiteseq/graphiteseq.html>

YOUTHUGHTWEWOULDNTNOTICE.COM

"Ez ginela jabetuko uste zenuen". Munduko diseinatzaile ezberdinek sekula entzun nahiko ez luketen esaldia da. Eta ez da harritzekoa. Webgune honetako arduradunek diseinu eta publizitate munduan ematen diren plagio, kopia eta "homenaiak" ehizatu eta publiko egiten dituztelako. Izen handiak erori dira honez gero...eta beste batzuk bidean dira.

YOUTHUGHTWEWOULDNTNOTICE.COM

"You thought we wouldn't notice". This is the sentence a designer would never like to hear. And it's not surprising. The coordinators of this web page hunt plagiarism, copies and "homages" of designers and publicists, and they make them public. Big names have already fallen... and others are on their way.

GRAPHIT SOUND


What's the sound of a picture? This gadget reads the graphite on a CD and it offers the opportunity to listen to its sound. This gadget is crazy and the balde loves crazy things. You can see the catalog of different drawings and their sounds in the following link:

<http://calebcoppock.com/Homepage/graphiteseq/graphiteseq.html>




eragin.com

diseinua, internet
eta argitarapenak



BREAD & BUTTER
BARCELONA
16-01 / 18-01 2008

X!B!oUZ
www.xibiouz.com



PARA-SKI

Para-ski originated as a sport in Switzerland in the early 1960s as a form of mountain rescue. The concept was to jump from an aircraft, parachute to an open area near the victim, strap on skis, and evacuate the casualty down the mountain. This winter, if you para-ski, you'll be able to fly over the crowded ski stations.

PARA-SKI

Para-ski izeneko jarduera Suizan jaino zen 60. hamarkadan. Hasera batetan mendi erreskate taldeek erabiltzen zuten teknika zen hegazkin batetatik salto egin eta parapentea eta eskien bitartez mendian zauriturik zeuden mendizaleak erreskatatzeko asmoarekin asmatua. Egun kirol bihurtu da. Beraz, neguko eski estazioetako jendetzak uxatu nahi badituzu badakizu zer egin.



ARTIUM

The exhibition "Errep(l)ka-gaiak" seems, at first sight, an exhibition of photographs by a group of artists. And that's also the case, but there is something else at the back of these photographs, and at the core of this exhibition's goal. The original, a copy, repetition, technology, time... it also offers an analysis of the different components of photography.

www.artium.org

ARTIUM

Errep(l)ka-gaiak erakusketak, lehen begirada batean artista talde baten argazki erakusketa dirudi. Eta hori ere bada, baina, argazki hauen atzean, eta erakusketaren asmoaren atzean beste zerbait ere badago. Originala, kopia, errepikapena, teknologia, denbora... argazki baten osagai ezberdinen inguruko hausnarketa bat ere proposatzen du.

www.artium.org



NONTZEBERRI

Abian daude Nontzeberri web guneak antolatutako Nontzeflash eta Nontzefilm. Animazio zein fikziozko film laburren lanik onenak Bilboko Zine Fantastikoaren Jaialdian (FANT 2008) pantailaratuko dituzte. Iaz 40 herri-tako 300 film baino gehiago jaso ziren. Kortoak bidaltzeko epea 2008ko otsailaren 21ean amaituko da.

www.nontzeberri.com eta
www.nontzeflash.com

NONTZEBERRI

Nontzeflash and Nontzefilm on-line competitions are already on. The best short films will be screened on the Fantastic Film Festival from Bilbao (FANT 2008). Last year we received more than 300 movies from 40 different countries. The deadline to submit short films will be the 21st February.

www.nontzeberri.com and
www.nontzeflash.com



bathsuit & globes / bainujantzia
eta eskularruak lotta vintage
stockings / mediak platino



open the
window
eta
utzi
sartzen



dress / soinekoa missioni






dress & corset / soinekoa eta kortsea janio renwich
stockings / mediak miss sixty
shoes/ zapatak pura lópez

bathsuit & globes / bainujantzia eta eskularruak lotta vintage
earings / belarritakoak susan suel



argazkilaria / photographer framn rezende
estilismoa / stylism diana mosie
horrazkera eta makilajea / hairdress and make up
erica rezende for tecni art de loreal & make up store
hairpiece / postizoak framn rezende for sangra
modelo / model sandra meliosova
(www.viewmanagement.com)



bathsuit & globes / bainujantzia eta eskularruak lotta vintage
earings / belarritakoak susan suel





skirt / gona lotta vintage
stockings / mediak platino
belt / gerrikoa janio renwich
shoes / zapatak gredos
collar / lepokoa susan suel



jacket / jaka janio renwich
belt / gerrikoa retro city

Gauzak asko aldatu dira denbora laburrean musika industrian. Ez bakarrik salmenta eta formatuetan, taldeen pentsatzeko moduan ere nabari dira aldaketak. Sormen eta irudimenari ateak ireki eta diskoak bere kabuz kaleratzeari ekin diote taldeek diskoetxeen deiarri itxaron gabe, duela hamar urte ia pentsa ezina zena. Radioheaden "In Rainbows" disko berria, XL Recordings diskoetxeak cd formatuan argitaratuko duena, izan da agian eztabaida piztu duena: internet bidez jarri zituzten salgai diskoko kantuak erosleak nahi zuten preziora. Princek azkenaldian egindako ekimenek ere musikaren industriari pista batzuk eman dizkio eta diskoak banatzeko bide berriak erakutsi ditu. Gure artean azkenaldian argitaratu diren disko interesgarrienetakoak autoekoiztuak dira: Eureka Hot 3 kasu. Taldeek jada ez dute diskoetxeen deia itxaroten eta aurrea hartzen dute bere musika zabaltzeko.


Metak diskoetxea itxi ostean Bide Huts proiektua abiarazi zuten Lisabo, Inoren Ero Ni eta Anarik adibidez. Neubat gasteiztarrek MataSellos diskoetxea sortu zuten "Stereosaurus" disko berria argitaratzeko. Aipagarria ere, Gaztelupeko Hotsak eta Elkarrekin aritu ostean, Mikel Urdangarin "top seller"-ak bere azken lana, "Anek idatzi dit zutaz" izeneko, bere kaxa kaleratu nahi izana. Autoekoizpenaren bideari ekinaz, diskoa, merkatu produktu soila ez dela frogatzen dute hainbat artistek. Borrokanen bigarren diskoa ere autoekoiztua izan da. Ibai azaldu digu: "Ez da arrazoi berezirik bilatu behar. Gure kabuz egiteko gai garelako lan egin dugu horrela". Lehen diskoarekin ikasitakoak bigarrenean balio izan die: "Lehen diskoa guk grabatu genuen eta diskoetxeekin hitz egin genuenean eskaintzen ziguten lana guk egin genezakeela konturatu ginen. Zailtasunak badira ere beti dago norbait inguruan laguntzeko prest".



Willis Drummond lapurtarrak estreinako diskoarekin ohiartzun handia izaten ari dira. Rockaren eskutik lan sendoa argitaratu dute. Rafak adierazi digunez promozioa da gehien kostatzen zaiena: "Diskoetxeek bere loturak dituzte komunikabideekin. Kontaktuak dituzte eta disko bat argitaratu bezain laster promozio kanpaina martxan jartzen dute. Guri ordea gehiago kostatzen zaigu jende horrena iristea. Gainera promozio lanetarako alperragoak ere bagara". Bere garaian Skunk-en aritua, Rafak aldaketak somatzen ditu musikaren munduan: "Lehen salmentak lortzea zen helburua, gaur egun musika ezagutaraztea da jomuga. Edozeinek grabatu dezake disko bat ordenagailu batekin eta mikrofono batzuei esker, honek muga asko apurtzen ditu". Honen harira Ibaik hausnarketa egiten du: "Gaur egun posible da zure kabuz zerbaite egin eta heldu nahi duzun jendartean zabaltzea, baliabide ugari dago horretarako". Baina bada alderantzizko bidea egin duenik ere: Munlet mendarotarrek bere kabuz argitaratu dituzte orain arteko lan guztiak. "Clínica de ruidos" disko berria Transpop diskoetxeak argitaratu die eta bikotearen lanik osatuena da "Gure kasua berezia da. Kolaborazio bat da, diskoa banatzen laguntzen digute eta horretaz gain kontzertuak ere lotzen dizkigute. Baina askatasun osoa dugu gure aldetik ere gauzak egiteko. Elkarlan bat da eta babesa ematen digu norbait zuei laguntzeko prest dagoela jakiteak".

Many things have changed in the music industry in a short time. These changes don't have to do only with sales and formats, but with the way of thinking of the bands. Many of them have published their own albums without waiting for record companies to call them. This was something unlikely ten years ago. "In Rainbows", Radiohead's new album, published by XL Recordings is the one that started it all: the tracks were on sale on the Internet at buyer's price. Lately, Prince's actions gave some hints to the music industry and showed some alternative ways to distribute his albums. The best albums published among us have been auto-produced: like Eureka Hot 3. Bands don't wait for the call of the record company anymore and go ahead in spreading their music.

After the closing of Metak, the record company, Lisabo, Inoren Ero Ni and Anari initiated the project Bide Huts. Neubat created the Mata Sellos record company to publish their new album, "Stereosaurus". Top seller, Mikel Urdangarin, worked with Gaztelupeko Hotsak and Elkar in the past, but he has decided to publish his latest work, "Anek idatzi dit zutaz" by his own. With this choice for the autoedition, these artists show that publishing a record is not only a business matter. Borrokan's second album is an auto production too. Ibai explained this: "There are no especial reasons. We did it this way because we were able to do it ourselves". They apply the learned lesson in the second album: "We recorded our first record and when we talked to the record company, we realized that we could do it ourselves. Even though there might be some difficulties, there is always someone around to help us". Willis Drummond's first album has aroused great interest. They published a great work. According to Rafa, the promotion was the hardest part: "Record companies have their own links with the media; they have contacts and, as soon as an album is published, they start the promotion. However, we need some more effort to get to that people. We are lazier when it comes to promotions". Rafa, an ex-member of Skunk, feels some changes in the music world: "Before, the goal was the sales, nowadays; the purpose is to get to know the music. Anybody can record an album with a computer and some microphones and this breaks many boundaries. Ibai has his own opinion on this: "Nowadays, it is possible to do something on your own and spread it among your people; there are many ways to do it".

However, there are people who do it the other way around: Munlet, from Mendaro, have published their own works. Their new album, "Clínica de ruidos" was published by Transpop and it is their most complete work. "Ours is an especial case. It is a collaboration, they help us spread our album and besides, they get us some concerts. But we have the freedom to work by ourselves. It is a common work and we feel protected knowing that there is someone ready to help you".





AUDIO

testua/by: arkaitz villar



The Go Team

Proof of youth

Memphis Industries / Sinnamon 2007

“Thunder, Lightning, Strike” lehen diskoan erakutsitako inozentzia puntu hori gainera kendu gabe itzuli da Brightongo talde gaztea. Ohiko sampleren babesean: hip hop, funk, pop edo soul doinuak erabili dituzte lan berriko kantu bizi eta jostagarriak sortzeko. Bonde Do Roleko Marina edo Chuck D bezalako kolaborazioa izan dute. Doinu alai eta dantzagarriak dira honakoak, institutu garaiki orotarazten dizkigutenak. Gaztetasuna transmititzen duen diskoa.

This young Brighton band are back with “Thunder, Lightning, Strike” and they still have that air of innocence that was characteristic of their debut. The usual samplers are to be found: they’ve used hip hop, funk, pop and soul melodies for their latest playful and lively compositions. The likes of Marina from Bonde Do Rol and Chuck D have collaborated on the record. Joyful and danceable, the record takes us back to secondary school days. A youthful record.

Humbert Humberts

Snake park

Subterfuge 2007

Komikia, punka eta alkimia elkarrekin jarri ditu Humbert Humbertek bere disko berria eraikitzeko. Hirugarren disko honetan ohiko punk doinueta babestu dira eta kasu batzuetan saxoaren laguntza ere izan dute apaingarri moduan. Kantu biziak eta motzak dira, askotan Devo bezalakoak gogorarazten dizkigutelarik. Animaliak erabili dituzte hitzak idazterako orduan. Kantu ezberdin eta dinamikoak eskaintzen dituzte berriz ere, aurreko lanetako ildo berean jarraituz. Dantzarako doinuak baladekin konbinatzen lortzen duten dialektikak aberasten du diskoa, nahiz eta gure kasuan, dantzatzeko ari direnean gustokoago ditugun.

Humbert Humbert has combined the comic, punk and alchemy on his new record. This third album strides the known roads of punk with a little saxophone thrown in every now and then to colour things up a little. The songs are short and lively affairs and sometimes reminiscent of Devo. They’ve used animals when writing the lyrics. Different songs but all dynamic, just like on previous recordings. There is a rich dialectic formed by the mixture of ballads and dance tunes (even though it must be said that we prefer the live lier ones).

Beirut

The Flying Club Cup

4AD - PopStock! 2007

Zach Condon gazteak sortutako proiektu honen lehen diskoan soinu balkanikoen eragina nabarmena zen. Munduko atek ireki zizkion eta diskoa zuzenean aurkezteko bidai luze batean murgildu zen. Bidai horretan bildutako soinuek betetzen dituzte lan berri honetako kantuak, frantziar eragin nabarmena erakusten dutelarik batzuetan. Nostalgiaz betetako kantuak dira: konposaketa handiak. Ohiko musikariek lagunduta edozeini emozioa pizteko modukoa abestiak dira. Denbora bere alde jarri zuen Beirutek eta orain denboran zehar bidaiatuz eraikitzen ditu bere kantuak.

Young Zach Condon is the guy behind this project and their first offering was heavily influenced by Balkan sounds. The world opened up before him and he toured all over the place. The songs on this new album are full of melodies and sounds he’s picked up in different places on those travels, with a heavy French presence at times it must be said. These are great compositions, full of nostalgia. Backed up by the usual musicians he surrounds himself with, any of these songs is capable of moving you. Beirut had time on their side and now they travel through time to build their songs.



Dj Solal

The Moonshine Sessions

Ya Basta records / Karonte 2007

Geldirik egoten ez dakien artista horietakoa da Philippe Cohen Solal. Lan berria sortzeko Nashville aldera jo zuen. Gotan Project taldeko buruetariko bat izateaz gain bakarlarari moduan ekoizle eta dj ibilbide sendoa erakutsi du azken urteotan Solalek. Dj moduan erakutsitako azken emanaldietan garbi azaldu du country-rako tendentzia, baina hemen erakusten diguna hori baino gehiago da izan ere kantu borobilak sortu ditu: “The Academy of Trust” edo “Psycho Girls & Psicow Boys” besteak beste.

Philippe Cohen Solal just doesn’t know how to sit still. He’s that type of artist. For this record he headed west to Nashville. As well as being one of the leaders of the band Gotan Project, he has also done quite a lot of work as a producer and DJ over the last couple of years. His latest shows as a DJ have been heavily marked by a country music tendency but what he’s come up with here is even more so. He’s got a handful of really good songs here like: “The Academy of Trust” or “Psycho Girls & Psicow Boys” amongst others.

Audience

Tying Wings On Roots

Noiz Pop 2007

Esperientzia handia irabazi du taldeak zuzenean nahiz estudioan, 2003an “Second Handed” (Noiz Pop) diskoan erakutsi zuten bezala. Lau urte igaro ostean, disko berriarekin datoz. Erreferentzi musikal ugari bilatu baditzaiegun ere bakararra aurkituko dugu: Audience. Askotan landutako nortasuna lortu du taldeak eta hori lan berri honetan argi nabari daiteke. Blues edo countryaren sustraietara bidaiatuz urteko diskoa lortu dute gernikarrek.

The band have really gained in experience, both live and in the studio. This can clearly be seen in their 2003 release “Second Handed” (Noiz Pop.) Four years on and they’re back with a new record. You could dig up lots of musical references if you wanted, but it all comes back to the same thing in the end: this is Audience. They’ve really grown as a band and have achieved a strong personality of their own and this is really on show here. They travel to the roots of blues or country and have come up with the record of the year.

Mia

Kala

XL Recordings – PopStock! 2007

Diskoa entzuten hasi bezain laster bati energia transmititzen dioten horietako da hau: indartsua. Hitzek eta erabiltzen dituen lurralde sonoro ezberdinek gidatzen duten lan honetan ez da su etenerako tarterik. Lehen hiru kantuak bata bestearen atzetik datozen ezta danda dira. Festarako momentua dator gero: Jimmy. Hona iritsi orduko konturatzen da bat aurreko diskoan erakutsitakoa gainditu duela MIAk. Alboan Switch, Diplo edo Blaqstarr izan ditu kantuak ekoizterako orduan eta Timbalandekin abestuz amaitzen du diskoa.

This is one of those records that transmits energy to the listener from the very start. Strong stuff indeed. There is no let up as they move from musical lyrical and musical landscape to another. The first three songs are like three explosions in a row. Then it’s party time: Jimmy. By this time you realise that the MIA heads have gone one better than their last record. Switch, Diplo or Blaqstarr have produced the record for them and they sing the last song with Timbaland.

TALKA

TOUR 2007

FERMIN MUGURUZA
AFRO-BASQUE FIRE BRIGADE

Fermin Muguruzaren azken biraren liburua
200 orrialde, 500 argazki + DVD
The book of the last tour of Fermin Muguruza
200 pages, 500 pictures + DVD

ASTHMATIC LION SOUND SYSTEMAK AURKEZTEN DU!!

IRUN LION ZION IN DUB
(VOL. 1)

Fermin Muguruza * BDF-Basque Dub Foundation * Zion Train * Diak Sutara * Chalart58
Sorkun * BAD Sound System * Jah Slave * Rude * DJ Atodorolor * Pirates Urbains
Almagatodubproject * Rob Smith * Inoren Ero Ni * Esne Beltza * Lisabö * Benitt Ash
Alex Hohmann * DJ Mai * Euskal Tropela * International SPARTAK * Mungo's Hi Fi * Clive Hunt

IRUN LION ZION in DUB
Talka 015 CD

Argitaratu gabeko 22 kantu
Dekonstruktibismo DUBa
Sortzaile ezberdinen bilgune
musikal askea
Bideak gurutzatzen diren hirian
22 unreleased tracks
Deconstructivism DUB
Music meeting point of
different artists
In the crossroads city

UNDER WATER

BATO DEL AUGA

FERMIN MUGURUZA
AFRO-BASQUE FIRE BRIGADE

DVD

18/98 + BEC, Barakaldo
Baxus eta Lurra
Euskal Herria Jamaika Clash
Neuroz
Plastic Turkey
Mendebaldarketa
Yalah Yalah Ramallah
Nik Badtut Sei

TOUR 2007

Maputxe - Viña Rock Festival
Azoka Eguna
Redemption Song
La Fille du Quartier Populaire
In-Komunikazioa - Mexico D.F.
La Línea del Frente
Hitza Har Dezagun - Caracas
El Último Ska
Milaika Bilaka - Donostia
Ikusi Mendizaleak
Gora Herria
DUB Manifest - Tour 2007

ROAD MOVIE 07

Euskal Herria Mundua Clash
(50 minututan)



TALKA
WWW.TALKA.ORG
TALKA@KONTRAKAIEA.COM
201 POSTERAKIA
20.300 IRUN

FERMIN MUGURUZA
EUSKAL HERRIA JAMAICA CLASH

EUSKAL HERRIA JAMAICA CLASH
Talka 001 CD

BASS-que culture

FERMIN MUGURUZA
EUSKAL HERRIA JAMAICA CLASH
The movie
Dokumentala

TALKA

BASS-que Culture
Talka 005 DVD
+ CD Remix

testua / by: myriam gartzia

txuma murugarrenen...

egiak

"Ni kantugile xume bat naiz. Kantugile izatea arriskutsua da batzuetan, zure barneko mundua jartzen duzulako kolokan, denon aurrean. Kantu bat egitea zintzotasun ekintza bat izan daiteke. Baina kantu bat egitea gauza handia da ariketa horren ondorioz arinduago ateratzen zarelako. Arintzen zara egiak esaten nahiz eta mozorrotuta joaten diren. Ariketa horren bidez, guztiok behar dugun zerbait lortzen duzu ere, dela besteen onarpena edo onestea. Kantua egitea magia modu bat da. Hala ere, kantu bat egitea ez da beste bat baino hobeagoa izatea, nahiz eta kantu ona izan. Milioiak saltzen duen kantu bat egitea ere ez da aparteko gauza. Guztiok gara xumeak mundu honetan, inurrien modura".

...eta gezurrak

"Euskal musikagintzan ez dago endogamiarik. Musikariak adi daude kanpoan gertatzen denaz. Ez gaude gure zilborrari begira. Kostatzen zaigu beste hizkuntza batean entzuten den musika gure hizkuntzan entzutea, hemen egiten den lana gutxiesten dugulako, etxeko lana delako-edo, ez diogu ematen behar besteko garrantzia. Kanpokoa da beti ona.

Mundua mundua denetik beti izan da horrela, besteak egiten dutena gure erara egin, errebisatuz. Inork ez du ezer asmatu, dena asmatuta dagoelako. Horrela goaz aurrera. Durangon ikus daiteke. Han biltzen gara denok euskal kultura zein handia den ikustera, zenbat gauza egiten diren euskaraz eta abar. Lau egunez ikusteko eta etxera itzultzeko –zein ondo gauden Euskal Herrian– esateko. Baina handik aurrera ahazten gara euskal kultura dagoenik eta hurrengo urtera arte ez daukat beste zorrik euskal kulturarekin, eskupekoa emana dagoelako. Tranpa bat da, agian tranpa beharrezkoa, bestela hori ere ez genuke salduko eta".

txuma murrugarren and a few...

truths...

'I'm just a simple songwriter. Sometimes being a songwriter is a dangerous thing because you lay your inner world out for all to see when you write a song. Writing a song is an act of sincerity. But it's also a precious thing, because you feel unburdened once you have completed the process. Speaking your truths unburdens you even if you disguise them in whatever way. The exercise of writing a song also gives you what everybody needs: acceptance and recognition by others. Song-writing is a type of magic. Even so, writing a song doesn't make you better than anybody else, even if the song is a good one. To write a song that sells millions of copies is no great shakes. We're all like ants in this world, small humble creatures at the end of the day.'

...and lies.

'There's no inbreeding on the Basque music scene. All musicians are tuned into what's going on elsewhere. We don't really look at ourselves. It's hard for us to hear music that's normally done in another language in our own because we underrate the music created here. We don't give it the recognition it deserves. We have this notion that what comes from abroad is always better than what we do ourselves. It's always been like that. We take what others do and then do it our way. Nobody has invented anything, because everything has already been invented. That's how we advance.

You can see it at Durango (annual Basque Book & Music Fair held in Durango). We all gather together to admire how great and productive Basque culture is, how much work is being produced in the Basque language, etc. Four days of high octane culture and then it's off home feeling content with everything we have. But we then forget about Basque culture until the following year because we've coughed up our yearly tip. It's a bit of a trap, really, a necessary one maybe because otherwise we'd sell nothing at all, but a trap nonetheless.'




travelling through Ibn Battuta



Ibn Battuta was a traveller and author born in 1304 in Tangier and died in 1368, 1369 or 1377 in an unknown location in Morocco.

His writings, including the book Rihla (Travelogue) finished in 1357, provide an important source of knowledge about large parts of the known world of his day. Ibn Battuta started travelling in 1325, first setting out for on hajj. During his 29 years of travels, he covered 120,000 km, reaching China in the east, and Al Andalus in the west, Timbuctu in the south and the steppes of today's Russia in the north. Among the most treasured parts of his book are the descriptions of the court in , the Black Death in , his accounts of India, , and the lands around the river Niger.

all the pictures were taken while walking in the Ibn Battuta thematic shopping mall in Dubai.



Ibn batutaren baitan bidaiatzen



Ibn Batuta bidailari eta idazle musulmana 1304. urtean Tangerang-
en jaio eta 1368, 1369 edo 1377. urtean hil zen Marrokoko toki
ezezagun batean.

Utzi zituen idatzien artean, Rihla (Bidaia) liburua da aipagarriena. Bere
bidaietan bizi eta ikasitakoak bildu zituen bertan eta egun, garai hartako
bizitzaren berri izateko iturri ezinbestekoa da. Ibn Batuta 1325. urtean
hasi zen bidaiatzen. Mecca-ra egin zuen lehen bidaia musulman orok
bete behar duen hajj ospatzera. Baina ez zen

zuzenean itzuli. Ondorengo 29 urteetan 120.000 kilometro egin zituen
ekialdean China, mendebaldean Al Andalus, hegoaldean Timbuctu
eta iparraldean egungo Errusiako lautadak bisitatu. Bere bidai liburuan
utzitako artean Konstantinoplako Bizanzio kortean ikusitakoak,
Baghdad-en bizitako izurrite beltzaren ondorioak, Indian bizitako
pasadizoak, Anatolia edo eta Niger ibai hertzeko lurraldeen ingurukoak
topa ditzazkegu.





argazki guztiak dubain dagoen ibn batuta gune komertzialera eginiko bisitan ateratakoak dira.



urepel JAIEYEG

Salamanca pasealekua
3 20003 Donostia
www.urepel.net
943 42 40 40



ATSEDEN BILA ?
LOOKING FOR PEACE ?



www.siazgetaria.com

34.943.140.143 E. info@saiazgetaria.com

H. Roke Deuna 25 · Getaria Gipuzkoa



cargo.
antzerkia errepidean
theatre on the road

Sofian (Bulgaria) kamioi batetan sartu eta ondorengo egunotan, Madrilera (Espainia) heldu artean, antzerki batetako ikusle eta partaide bihurtu. Hori da hain zuzen Cargo obrak eskaintzen duena.

Esperientzia zeharo ezberdina bizi dute Cargo obrako ikusleek. Antzokietan ikusten diren proposamenetatik haratago doan antzerki "obra" da Cargo. Stefan Kaegi zuzendariak azaltzen digu bere lanaren nondik norakoa. << Bidaia, bereziki prestatu dugun kamioi batetan egiten da. 50 ikusle eta 2 gidari bulgariarrek parte hartzen dute bertan. Bidean, ikusleek, errepidean kamioi gidariak nola bizi diren ikus dezakete. Europa osoa gurutzatu eta kultura berrietara nola moldatzen diren eta hala eta guztiz ere euren izaera balkanikoa nola mantentzen duten bizi >>. Guztia kamioiaren alboko eserlekuetatik ikusten da. Kamioiaren albo bat kristalezko pantaila handi bat da eta ikusle-bidailariak horri begira bidaiatuko dira, travelling luze batean ariko balira bezala. Travelling hitzak hemen bere zentzu bikoitzari egiten dio ohore: bidaiari eta kamara mugimendu zinematografikoari. Ikusleak, "road movie" baten testigu eta parte izango dira baina hemen ez da filmatutako ezer ikusten, bat batean gertatzen den errealitatea baizik. << Bidaian zehar gidarien bizitza, polizien jokabidea, gasolindegietako bizitza...bidaia aurrera joan ahala ikusleak ez du jakiten non dagoen. Madrilera iritsi eta kamioi gidarien Madrid ezagutzeko aukera izaten dute eta ez da gidetan azaltzen den Madrid hori, kamioilari kanpotarrez beteriko Madrid periferikoa baizik>>.

Bizitza antzerki bihurtua eta antzerkia bizitza. Cargo antzezlanarekin globalizazioaren ondorioak argi agertzen direla azaltzen du Kaegik.<< Cargo-n parte hartu dutenek berehala jabetzen dira herrialde ezberdinetan egoera berdintsuak bizi direla eta arazo berdeinei egiten zaiela aurre. Baina era berean, lehen aipaturiko gidarien izaera propio horrek ere bere kontrapuntua jartzen du. Guztion ahotan dagoen globalizazioan, bakoitzak bere izaera mantentzeko joera ia instintiboa izaten du>>.

You get on the truck at Sofia, Bulgaria and over the next few days, until you get to Madrid, you become a member and spectator of a travelling theatre. That's what the play Cargo offers.

The audience of the play Cargo have lived through a totally different experience. The "play" Cargo goes much further than anything you may see in a theatre. Director Stefan Kaegi explains the why and wherefores of it all: "The journey takes place in a truck we've specially prepared for the whole thing. 50 spectators and 2 Bulgarian drivers take part. On the journey, the audience can see how a truck driver lives. They see how they drive across Europe and how they adopt to new cultures whilst still maintaining their own Balkan character." Everything is seen from seats at the side of the truck. One side of the truck is a big glass window and the spectator-travellers spend the journey watching all that happens through it, as if it were one long journey. The word 'travelling' is honoured in two ways here: both as a the act of travelling in itself and in its cinematographic sense. The viewers are witness to a 'road movie' but rather than watching something that has been previously filmed, they live through the experience as it happens, and anything can happen. "Throughout the journey there's the way the drivers live, how the police operate, the world of petrol stations... as the journey advances, the spectator won't know where they are. When they reach Madrid, they get Life becomes theatre and theatre life. Kaegi explains how the consequences of globalisation are clearly seen in Cargo: "People who take part in the Cargo experience quickly realise that people in different countries live through the same experiences and situations and have to confront the same problems. But at the same time, as I said before, the special truck driver Balkan character adds a counterpoint to the whole thing. Globalisation is rife but everybody still finds a way to hang onto what makes them themselves. It's almost instinctive".











gida










80/70

euskarazko produktuen gida

liburu hiztegi aldizkari kon
gialdizkari komiki dvdjoko
komiki dvdjoko & jolas cd-1

Aldizkariak

 KARRAMARRO TXIKI IKA kultur elkartea 0-7 urte 2€	 KARRAMARRO ALDIZKARIA IKA kultur elkartea 8-14 urte 2€	 ENTZUN! eragin.com 15 urteko gora 3€ / Harpidetza 15€	 THE BALDE eragin.com 15 urteko gora Doakoa / Harpidetza 9€
 ALDAKETA HAMASEI Aldaketa Helduak 3€ / Harpidetza 145€	 ARGIA Argia Gazteak eta Helduak 3,60€ / Harpidetza 130€	 AISIA BIZIZ Hiru hilabetez Urtekoak, hezitzaileak 5€	 BEHINOLA Haur eta Gazte Literatura Galtzagorri 8€ / Harpidetza 16€

 GAZTEZULO Donostiako Komunikabideak 16 urteko gora 2,20€ / Harpidetza 14€	 HABE Euskara ikasleen hilabetez Habe 16 urteko gora 3€	 AIZUJ aek 18 urteko gora Harpidetza 28€ / Ipar Euskal Herria 32,50€	 OSATUZ Euskara ikasten ari garenen aldizkaria Habe Helduak 3€	 LUMA Denbora-pasa hilabetez Luma 3,10€
 ELHUYAR Zientzia eta Teknika Elhuyar Fundazioa Adin guztiak 4,5€	 HERRIA Astekaria Herria Helduak 1,10€	 HIK HASI HIK Hasi Helduak 4€ / Harpidetza 50€	 NABARRA Hilabetez Nabarra Helduak 3€ / Harpidetza 33€	

Euskarazko produktu berrienak ezagutzeko GIDA: aldizkariak, komikiak, DVDak, jokoak eta jolasak, CD-romak, musika, liburuak eta hiztegiak

Donostiako liburu dendetan, Euskararen Udal Patronatuan edo www.euskaraz.net helbidean aurkituko duzu

peter weir...zinegile ikustezina the invisible filmmaker

testua / by: uxeta labrit

Peter Weir-en lehenabiziko filmak, ukitu amateurra badute ere, bere lanik askeenak direla esan genezake. Ez dira bere filmik txukunenak, baina generozko film alternatibo hauetan aurrekontu urri eta irudimen handia sumatzen da. Mundu osoko beldur eta fantasia jaialdietan parte hartu ostean AEBtako ekoiztetxe batek hotsegin eta "zinemaren meka"-ra abiatu zen. Bertan, beste zuzendari batzuk alboratzen zituzten gidoiak hartu eta film duin eta interesgarriak egiten zekiela laster erakutsi zuen. Hollywood-eko izar handienekin lan egin du eta haiekin eginiko film guztien promozioetan beti entzun dugu "aktore honen azken lana" edo "aktorea haren paper berria", baina pelikula guzti horiek apenas izan dira iragarriak Peter Weir-en azken filma gisa. Bere filmik okerrenera hurbiltzen ez den zuzendari asko Peter Weir baino ezagunagoa da. Adibidez, zuk irakurle, ez duzu sekula santan entzun zinegile honen izena, eta noizbait entzun baduzu, ez zaizu disko gogorrean geratu. Lerrok sinatzen dituen honi horrelako zerbait gertatu zitzaien egile honen film guztiak bata bestearen ostean idatzita ikusi zituen arte. Eta hain zuzen deskubrimendu hura izan zen artikulotxo hau idaztearen arrazoia.

Honelako sortzaile batekin topo egiten dugunean jabetzen gara famatua eta garrantzitsua izatearen artean dagoen ezberdintasunaz. Pertsona garrantzitsua izanik ezezaguna izateak, anonimoa, abantailak besterik ez ditu. Peter Weir-i inork ez dio kakarik ematen eguneroko ogia erostera joaten denean, edo bere familiarekin paseatzera ateratzen denean edo eta bizitzan zehar izaten diren bizio edo ezkutuko pekatuetaz disfrutatzerakoan...

Zinemagile australiarrak "normala" izateko egin duen aukera hau bere filmetan islatzen da. Komedia edo drama izan, bere pertsonaiek sinesgarritasuna izaten dute, hain zuzen ere muturreko egoeratan izanda ere jende "normala" direlako beti. Zinemagile ikustezina da Weir. Beste garai batekoa. Hollywood-eko estudioen urrezko aroan lan egiten zuten zinegile klasiko eta profesionalen testigua hartu duen gutxi horietako. Eta ikustezina izanik, oso zinemagile gutxi lortu duena lortu du: komertzialtasuna eta estilo pertsonala propioa batzen dituen begirada izatea. 40 urte daramatza Weir kamararen atzean. Detalle txikiak errepikatzen dituen zinemagile honek bizpahiru urte behar izaten du proiektu bakoitzeko gauzatzeko. Orain bi proiektu ditu eskuartearen. Datorren urtean estreinatuko den "Pattern Recognition" eta laister filmatzen hasiko den "Shadow Divers". Zain gaude.

filmografia / filmography

homesdale (1971) the cars that ate paris (1974) picnic at hanging rock (1975) the last wave (1977) gallipoli (1981) the year of living dangerously (1982) witness (1985) the mosquito coast (1986) dead poets society (1989) green card (1990) fearless (1993) the truman show (1998) master and commander (2003)

Although you could say that Peter Weir's first films had a certain amateurish element to them, they still remain his least shackled work. They are not his best films but these alternative movies clearly indicate they were made low on budget and high on imagination. Having attended horror and fantasy film festivals all over the world, he got the call and headed off to cinema 'Mecca.' Once there, he began to pick up scripts that other directors wouldn't touch and he soon showed that he could make some pretty dignified and interesting films from them. He's worked with the biggest stars in Hollywood and the promotion of those films always carries stuff like 'this actor's latest film' or 'that actress's latest role.' You never hear Peter Weir's name being mentioned. Many director's who couldn't get within an ass's roar of his worst movie are more well-known than he is. For instance, you, dear reader, have never ever ever heard of him. Not once. And if you have, you've quickly forgotten his name. Me, the one writing this, had the same thing happen to her. Until I saw all of the films he has made listed one after the other. That's what made me write this.

When you come across an artist of this calibre, you can clearly see the difference between being famous and being important. As an important person, anonymity, not being known, is only of advantage. No-one bothers Peter Weir with shitty nonsense every time he goes out to buy bread. Or when he goes out for a stroll with his family. Or when he gets into those little vices and sins that pop up every now and then in life. No-one. The Australian filmmaker's choice to remain anonymous can be read into his movies as well. It doesn't matter whether it's a comedy or a drama, his characters are always believable because when they are in extreme situations, they react like 'normal' people. Weir is an invisible moviemaker. From a different time. He's one of the few directors to have taken up the torch of those classic professional filmmakers from the golden era of Hollywood. And as invisible filmmakers go, he has managed to achieve what very few others have: commercial success and a style that reflects a personal outlook on the world. Weir has spent almost the last forty years behind a camera. He pays attention to the smallest detail and takes two to three years to make a film. He has two projects in the pipeline: 'Pattern Recognition', to be premiered next year, and 'Shadow Drivers', of which filming will shortly begin. We impatiently await.



Ikerketa proiektuak elkarrekin garatzeko, artistak eta ikerkuntza, garapen edota berrikuntza unitateak bat egiteko programa.
Ikerketak jarraitu www.disonancias.com web gunean.

we are
Divergentes
gara

Álvaro Castro + Fran Gallardo

Dorlet

Victor Iriarte

Eitb

Cuantics Creatives

Fundación Ikertia

ReD

Imar

2007/08

D|SONANC|AS
Artea eta berrikuntza
Art for innovation

Recetas Urbanas

Lanik

AMASTÉ

Lantegi Batuak

Mariano Maturana + Consol Rodríguez

Polo Garaia

Daniela Bershan

Grupo Sarkis Lagunketa

Ania Bas

Tecnalia

Babeslea



ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamentoko eta Jakinarazpen Departamentoko
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

Komunikabide elkartua

the balde
www.thebalde.net

Eragilea

20 XBD
GRUPO XABIDE

ordu erdia 51 an half & hour in the 51th

(Brasov-Errumania-Romania)

Kanpora egiten dugu so barnera salbu gaudelakoan. Baina kanpoa geure baitan dago. Kanpoa gurekin dator eta bizi da. Gurekin geure baitako Errepublikak Independiente eta bakartian non zoriona Galbidean dagoen espeziea den.

We look outside when we feel safe inside. But the outside is inside us, too. The outside is with us. It's alive. With us in our inner Independent Republic and solitude where happiness is a species in danger of extinction.



argazkiak / shots by: galder izagirre
hitzak / words: maria odolbatu



Bada toki bat ezerezaren erdian. Txoriek ihes egiten dioten toki bat.

There is a place in the middle of nowhere.
The place where birds escape from.

Pertsonak isilpean gerturatzen ikusten dituen toki bat.

A place that sees people approach
in silence.





Geure poz eta miseriak ezkutatzen dituen bihotz korazatuaren zabortegei bat.

A rubbish dump for amour-plated hearts where we hide our happiness and misery.



Geure baitako Errepublika Independiente eta Bakartia.

Our inner Independent Republic and Solitude.



Hemendik askok eta askok euren zama soinean dutela ihes egiten dute. 51 eta mila bider bide bera eginez. Aurrera ihesean.

